



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2023ko urriaren 3ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko urriaren 3an, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : FALXA Odile.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2023ko irailaren 29a

Afitxatze eguna : 2023ko irailaren 29a

## 2. ERABAKIA: 2023ko ERREPIDEENTZAKO DIRULAGUNTZA

(8.3 nomenklatura: Bideak)

Auzapezak Herri Biltzarrari aurkeztu dizkio 2023an egin beharko diren errepide lanak, honako herriko bideetan:

Xapelneko bidea, Pagaluzeko bidea, Bertranttipiko bidea, Martingazteeneko bidea, Behereko landako bidea, Urbazterreko bidea, Murgialdeko bidea

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluari obra horientzako dirulaguntza eskatzea.

Auzapezak zehaztu du Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluko herrien laguntzeko araudia 2023ko urtarrilaren 1ean aldatu zela. Araudi aldaketa horren zergatiak bi arrazoi ditu: lehenik, herri bakoitzari dagokion eskuhartze tasaren eguneratzea, eta bestetik, bereziki bide proiektuetan ingurumen trantsizioa jokagaiak hobeki txertatzeko ekologia-bonifikazioak. Zehaztu du ekologia-bonifikazioak eskuhartze tasa emendatuz gauzatuko direla finkatutako helburuak betetzen dituzten proiektuentzat. Neurri honek ez ditu eskuhartzeak ingurumen irizpideengatik baldintzatzen; eredugarriak diren proiektuak normalean baino gehiago laguntzeko xedea du.

Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik, Herri Biltzarrak aho batez:

- **ONARTU DU**, aurkeztu duen 2023ko errepide lanen proiektua,

- **ESKATUKO DIO**, dirulaguntza Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluari.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14  
Balizko boz kopurua : 14  
ALDE : 14  
KONTRA : 0  
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.  
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko urriaren 3an

Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/10/10ean publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/10/10ean.